



E t x e a

Uxue Alberdi Estibaritz

Etxe guztiak dira ezberdinak eta bakarrak. Baita bertan bizi den familia bakoitza eta partaide bakoitza ere. Denak ezberdinak badira, zer da etxe bat etxe egiten duena?

Doinua: Gure eliz dorreko Kopla txikia

- 1 Etxeak behar ditu leihoak **mundura** kortinak haizetan ta iturrian **ura**.
- 2 Etxea da egurra lurra ta **buztina** bihotzak babesteko propio **egina**.
- 3 Etxeak behar ditu belarridun **hormak** emozioen giltzak gorputzaren **formak**.
- 4 Etxea bedi hotzak denaren **sutondo** onartzen gaituena gaizki edo **ondo**.
- 5 Etxeak ez du behar ateko **zakurrik** inork ez dezan izan sartzeko **beldurrik**.
- 6 Etxeak behar du non eseri, non **etzan** bihar altxako denak atsedean har **dezan**.
- 7 Etxea zain bezate limoiak, **gaztainak** lagunaren beroak ta sukalde **usainak**.
- 8 Etxeak ditu katu beltzak **teilatuan** unibertsozko izar denekin **tratuan**.